



## ARRASATEKO UDALA ETA IBAIARTE MERKATARIEN ELKARTEAREN

### ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA,

### 2013KO EKITALDIAN HIRI MERKATARITZA JARDUERA SUSPERTZEKO.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR jauna, Arrasateko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta Udala ordezkatzuz.

GABINO YARZA jauna, Arrasateko IBAI-ARTE Merkatarien Elkarteko lehendakaria, erakunde horren izenean eta erakundea ordezkatzuz.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan edukita ondoko

### AURREKARIAK

1. 2007. urtean IKEI enpresak Arrasateko Udalarentzat burututako azterketaren arabera (Arrasaten bi merkataritza-ekipamendu berriren irekieraren eragina merkataritza sektorean), Arrasateko txikizkako merkataritzako zenbait sektorek **gastu-ihes nabarmena** jasaten dute; besteak beste, Pertsonentzako Ekipamenduan (jantziak, oinetakoak eta osagarriak) gastu-ihesa % 46,9koa da eta Etxerako Ekipamenduan aldiz (etxetresna elektrikoak, elektronika, irudia, altzariak, dekorazioa...) % 40,5koa da.

Gastu-ihes horien kausak, oro har, eragile hauen ondorio izan daitezke:

- Beste merkataritza-guneetako eskaintza zabalagoa: aintzat hartu behar dira, esaterako, Gasteiz eta Eibar, zeintzuetan establezimendu-pilaketa handia baitago.
- Kontsumo-ohituren aldaketak.
- Komunikazio-bideen hobekuntzak.
- Merkataritza-egitura berrien sorrera.
- Faktore guzti hauekin, lehiakortasun-maila gora doa, eta gero eta ohikoagoa da merkatu potentzial beragatik hainbat merkataritza-gunetako eskaintzak lehian aritzea (hiriguneko dendak, saltoki-guneak, azalera ertaineko denda espezializatuak ...).





Eragile horiek guztiek udalerriko denda txikietan eragin negatiboa izan duen errealitate berri bat deskribatzen dute.

2. Arrasateko Udalak berea du hiriguneko merkataritza sektorea indartzeko eginkizuna, eta bere sail desberdinen bidez gauzatzen du betebeharrak.
3. Ibaiartek 2013ko ekitaldirako, 2012ko Merkataritza Dinamizazioa programaren bidez, merkataritza teknikari baten laguntza du, sektorea suspertzeko ekimenak antolatzeko.
4. Ibaiartek Udalarari 2013ko otsailaren 28an 2013rako Ekintza Plana aurkeztu dio, ondoko ekimen zehatzak eta ekitaldian zehar suertatu daitezkeen beste batzuk burutzeko:

- Merkemerkaia 2013.
- Merkataritza Berdearen Astea.
- Gabonetako Kanpaina.
- Ibai Arte Txartela.
- Ibai Arte Web Orria.
- Dendari.com.
- Udaberriko Festa.
- Arrasate Irekia.
- Prestakuntza.
- Beste ekimen puntualak: "Ardo Bira", "Harreman Tonbola", "Erakuslehiario lehiaketa", "Baserritarren Azokak",

5. 2013ko apirilaren 29an Arrasateko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen Ibaiartek aurkeztutako 2013rako ekintza plana burutzeko lankidetzaren eskaintza.
6. 2013ko Udalaren aurrekontuak hiri merkataritza suspertzeko kontu sail bat izendatuta dauka Ibaiarteren bitartez kudeatzeko hiri merkataritza suspertzeko interbentzioak burutzeko ("1-14-00-481-711-00-00 Ibaiarterako Ekarpina-Merkataritza Sustapena") 31.000€tako konsignazioarekin.

Arrasateko Udalak, euskararen normalizazioan merkataritza sektore estrategikoa dela ohartuta, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak euskaraz ere emango direla bermatze aldera, Merkataritza Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana du, Ibaiarte Merkatarien Elkartearekin elkarlanean 2013ko Merkataritza Sustatzeko Ekintza Plana burutzeko lankidetzaren honetan konpromiso batzuk jasotzea eskatzen duena.



Azalduko guztiatik, erakunde biek





## HITZARTZEN DUTE:

1. Arrasateko Udalak 31.000€rainoko ekarpena egingo dio Ibaiarteri 2013ko Ekintza Plana burutu dezan. Arrasateko Udalaren diru ekarpenak ez du inoiz suposatuko ekintza bakoitzaren kostearen %25a baino gehiago.
2. Arrasateko Udalaren diru ekarpena era honetara ordainduko da:
  - Ekarpenaren %50a hitzarmen hau sinatutakoan.
  - Ekarpenaren gainontzeko %50a, edo likidaziotik ondorioztatzen den gainontzeko kopurua, urte amaieran eta ekintza guztiak jasoko dituen ejekuzio memoria eta likidazio ekonomikoa aurkeztuta eta Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailak onarpena emandakoan.
3. Ibaiartek konpromisoa hartzen du 2013ko Ekintza Planeko ekimen guztiak burutzeko. Ekintza Plan horretan jasotzen ez den ekimen berriren bat sortuz gero, Ibaiartek Udalari azalduko dio hori burutu baino lehen. Era berean, 2013ko Ekintza Planak jasotzen dituen ekimenen bat burutuko ez balitz, aldaketa hori azalduko duen txostena aurkeztuko dio Ibaiartek Udalari.
4. Hizkuntza normalkuntzari dagokionez, Ibaiartek konpromisoa hartzen du hiri merkatarizta suspertzeko 2013ko Ekintza Plana burutzearekin lotutako mezu idatziak eta jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo ele bietan egiteko. Ele bietan denean, euskarari lehentasuna emango zaio era nabarmenean. Udalak, bere aldetik, mezuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko Udaleko Euskara Sailaren aholkularitza zerbitzua Ibaiarteren esku jarriko du.

Klausulek ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertutakoek hiru aletan izenpetu dute agiria

Arrasaten, 2013ko maiatzaren 13an

Inazio Azkarragaurizarrek izenpetua

Arrasateko Udala



Gabino Yarzak izenpetua

IBAI-ARTE Merkatarri Elkarte

